Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko ekainaren 24a, asteazkena — 118 — Miércoles, a 24 de junio de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LASARTE-ORIAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal honetako Osoko Batzarrak, 2020ko ekainaren 11an egindako ohiko bilkuran eskolako materiala erosteko familientzako laguntzen eta Lasarte-Oriako merkataritzaren aldeko babesaren oinarrien aldaketa aho batez onartu zituen, eta ondoren adierazten den bezala idatzita geratzen dira. Gainera, publizitatea eman zaie Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuta.

Korporazio Lokalen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduko 206. artikuluan ezarritakoaren arabera, idatziz adierazia uzten da ezen honako erabaki hau jasotzen duen akta oraindik onetsi gabe dagoela.

Lasarte-Oria, 2020ko ekainaren 15a.—Agustin Valdivia Calvo, alkatea. (2668)

*Eskolako materiala erosteko familientzako laguntzen eta Lasarte-Oriako merkataritzaren aldeko babesaren oinarriak.*

1. *Xedea.*

Lasarte-Oriako Udalak eskolako materiala erosteko laguntzen deialdia egiten du, Derrigorrezko Hezkuntzako mailei eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (Batxillergoa eta LH Erdimailako Zikloa) dagozkien kurtsoetako edozeinetan matrikulatutako ikasleentzako materiala Lasarte-Oriako dendetan eros dadin.

2. *Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.*

1. Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak Lasarte-Oriako dendetan eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira edo Lasarte-Oriako ikastetxeak eta guraso-elkarteak, betiere laguntza eskatzen den urteko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean erosiak badira, BEZa barne. Honako elementu hauek hartuko dira eskolako materialtzat:

— Idazmahaiko materiala eta suntsikorrak: lapitzak, boligrafoak, ezabagailuak, klipak, txorroskiloak, eskuairak, kartaboiak, garraiagailuak, rotringa, koadernoak, folioak eta informatikako suntsikorrak.

— Material ez-suntsikorra: kartapazioak, sailkatzaileak, artxibategiak, kutxatilak, kalkulagailuak, konpasak, eskola-motxilak, bereizgailuak, testuliburuak (testu-liburuen eta curriculum-materialaren eta material digitalen Kudeaketa solidarioko programakoak barne).

— Eskolako uniformea (eskolako mantalak barne), gorputzhezkuntza praktikatzeko arropa eta kirol-oinetakoak.

— Arte Hezkuntza, Plastikako eta Ikusizko Hezkuntza, Teknologiak edo Musika praktikatzeko eskulanen elementuak (argizariak, olioak, pinturak, pintzelak).

— Betaurrekoak edo lentillak (lente zuzentzaileak).

— Teknologia berriak, ekipo informatikoak, hardware eta software mota guztiak.

— Eta, oro har, ikastetxeak zirkular bidez espezifikoki eskatutako edozein material.

## AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

*Anuncio*

El Pleno de este Ayuntamiento en sesión ordinaria celebrada el día 11 de junio de 2020 acordó por unanimidad aprobar la modificación de las bases para la concesión de ayudas a las familias y apoyo al comercio de Lasarte-Oria para compra de material escolar, que quedan redactadas como se indica a continuación, y a las cuales es preciso dar publicidad en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

De conformidad con lo establecido en el art. 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, se hace constar que el acta en el que se recoge el presente acuerdo no se halla aprobada.

Lasarte-Oria, a 15 de junio de 2020.—El alcalde, Agustin Valdivia Calvo. (2668)

*Bases de las ayudas a las familias y apoyo al comercio de Lasarte-Oria para compra de material escolar.*

1. *Objeto.*

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria convoca, ayudas para la adquisición de material escolar en comercios de Lasarte-Oria para el alumnado matriculado en cualquiera de los cursos correspondientes a los niveles de Enseñanza Obligatoria, Bachillerato y FP Grado Medio de Enseñanza Post Obligatoria.

2. *Gastos subvencionables.*

1. Serán subvencionables los gastos habidos por adquisición de material escolar en comercios de Lasarte-Oria, Centros Escolares o en las AMPAS de Lasarte-Oria entre el 1 de julio y el 30 de septiembre del año en el que se solicite la ayuda, incluyendo el IVA. Se consideran material escolar los siguientes elementos:

— Material de escritorio y fungibles: lápices, bolígrafos, elementos para borrar, clips, sacapuntas, reglas, escuadras, cartabones, transportadores, rotrings, cuadernos, folios, y consumibles informáticos.

— Material no fungible: cartapacios, clasificadores, archivadores, estuches, calculadoras, compases, mochilas escolares, separadores, libros de texto (incluyendo los del Programa de Gestión Solidaria de Libros de Texto y Material Curricular y digitales.

— Uniforme escolar (incluidas batas escolares), ropa y calzado deportivo para la práctica de la educación física.

— Elementos de manualidades para la práctica de Educación Artística, Educación Plástica y Visual, Tecnologías o Música (ceras, óleos, pinturas, pinceles).

— Gafas o lentillas (lentes correctoras).

— Nuevas tecnologías, equipos informáticos, todo tipo de hardware y software.

— Y en general, cualquier material específicamente exigido por el centro escolar mediante circular.

EK\CV GAO-I-2020-02868

2. Espezifikoki kanpoak geratzen dira: Eskolako kuota eta jantokikoa, arropa eta oinetakoak oro har, eguzkitako betaurrekoak, kirol-diziplina bateko kirol-material espezifikoa,

*3. Laguntza emateko prozedura.*

Laguntzak deialdi irekiaren bidez tramitatuko dira, konkurrentzia ez-lehiakorraren eta banakako ebaluazioaren erregimenean.

*4. Onuradunak.*

1. Laguntzen onuradun izan ahalko dira familia-unitate bateko kide diren pertsona fisikoak baldin eta beren kargura ikasleren bat badaukate derrigorrezko hezkuntzako kurtso batean matrikulatua, Derrigorrezko Hezkuntzako baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (Batxillergoa eta LH Erdi Mailako Zikloa) mailei dagozkien kurtsoetako edozeinetan.

2. Diru-laguntza hauen onuradun izateko, ez dago Lasarte-Oriako Udaleko diru-laguntzen eskatzaileen erregistroan inskribatuta egon beharrik.

*5. Laguntza lortzeko eskakizunak.*

1. Eskaeraren unean, familia-unitateak honako eskakizun hauek bete beharko ditu:

a) Laguntza berarentzat eskatzen duen ikasleak eta haren eskatzaileak eskaera egiten den urteko urtarrilaren 1etik etenik gabe erroldaturik egon beharko dute.

b) Diru-laguntzaren eskatzaileak diru-laguntza berarentzat eskatzen den ikaslearen aita, ama edo tutorea izan beharko du.

c) Diru-laguntza berarentzat eskatzen den ikasleak Derrigorrezko Irakaskuntzako mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (LH Erdi Mailako Zikloa eta Batxillergoa) matrikulatua egon beharko du deialdiaren urteari dagokion ikasturtean, EAEko Hezkuntzako Administrazioak baimendutako edozein ikastetxetan.

d) Familiaren urteko errentak ez du gainditu beharko deialdian tarte bakoitzerako ezarritako zenbatekoa.

e) Eskaeraren unean, eskatzaileak Lasarte-Oriako dendetako fakturak eduki beharko ditu, edo haiek ordezten dituzten antzeko dokumentuak (faktura sinplifikatua), laguntzaren kopuru beraren edo gehiagoren balioko (BEZa barne) eskola materiala erosi duela justifikatuko dutenak.

Faktura horiek Lasarte-Oriako ikastetxeek edo Lasarte-Oriako ikasleen gurasoen elkarteek egindakoak ere izan daitezke, edo gurasoen elkarteko diruzainaren ziurtagiria, eskola-materialaren erosketari dagokion zenbatekoa adierazten duena eta ikaslea identifikatzen duena.

Faktura sinplifikatuak bezeroa identifikatzen den establezimenduko albaran batekin aurkeztuko dira.

f) Eskatzaileak edo kontuaren titularrak eta aurkezten den fakturaren bezeroak pertsona bera izan beharko dute.

g) Familia-unitateko kideak ez dira Udalarekin zorretan ez egongo diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik. Baldintza hori Udalak berak egiaztatuko du.

h) Eskatzaileak kontu-zenbaki bat eman beharko du, laguntza han ordaindu ahal izateko.

2. Onuradun izateko, ez da beharrezkoa izango hemen jasotakoak baino baldintza gehiago betetzea, eta ez da beharrezkoa izango Diru-laguntzei buruzko Legearen 13. artikuluan eta garapen-araudian jasotako gainerako baldintzak betetzea.

2. Se excluyen específicamente: la cuota escolar y de comedor, la ropa y el calzado en general, gafas de sol y el material deportivo específico de una disciplina deportiva.

*3. Procedimiento de la concesión de la ayuda.*

Las ayudas se tramitarán mediante convocatoria abierta en régimen de concurrencia no competitiva y evaluación individualizada.

*4. Beneficiarios.*

1. Podrán acceder a la condición de beneficiario las personas físicas que formen parte de una unidad familiar, que tengan a su cargo algún alumno o alumna matriculado en cualquiera de los cursos correspondientes a los niveles de Enseñanza Obligatoria, Bachillerato y FP Grado Medio de Enseñanza Post Obligatoria.

2. Para ser beneficiario/a de estas subvenciones no es preciso estar inscrito/a en el registro de solicitantes de subvención del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*5. Requisitos para obtener la ayuda.*

1. En el momento de la solicitud la Unidad Familiar deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) El alumno o la alumna para quien se solicite la ayuda y el o la solicitante de la misma deberán figurar empadronados en el municipio de Lasarte-Oria con una antigüedad a 1 de enero del año en el que se realice la solicitud.

b) El o la solicitante de la subvención deberá ser bien el padre, la madre, o tutor o tutora del alumno o alumna para quien se solicita la subvención.

c) El alumno o alumna para quien se solicite la subvención deberá encontrarse matriculado en el curso escolar correspondiente al año de la convocatoria en los niveles de Enseñanza Obligatoria o Educación Secundaria Post Obligatoria (Bachiller y FP Grado Medio) en cualquier centro escolar autorizado por la Administración Educativa de la CAPV.

d) La Renta Anual Familiar no deberá superar el importe que se establezca en la convocatoria para cada tramo.

e) En el momento de la solicitud, el o la solicitante deberá encontrarse en posesión de factura(s) o documento análogo que lo sustituya (factura simplificada) perteneciente(s) a comercios de Lasarte-Oria en lo(s) que se justifique la compra de material escolar por valor igual o superior al importe de la ayuda, incluyendo el IVA.

Estas facturas pueden ser así mismo las emitidas por centros escolares de Lasarte-Oria o por Asociaciones de Madres y Padres de alumnos y alumnas de Lasarte-Oria o certificado del tesorero de la asociación de padres y madres en el que se indique el importe correspondiente a la compra de material escolar y se identifique el alumno o alumna.

Las facturas simplificadas se acompañarán de un albarán del establecimiento en el que se identifique al cliente o clienta.

f) El o la solicitante, el o la titular de la cuenta y el cliente o la clienta de la factura que se presente deberán ser coincidentes.

g) Los miembros de la Unidad Familiar no serán deudores/as del Ayuntamiento antes de formular la propuesta para resolver la concesión de la subvención. Este requisito será comprobado por el propio Ayuntamiento.

h) El o la solicitante deberá aportar un número de cuenta en el que abonar la ayuda.

2. Para obtener la condición de beneficiario no será necesario cumplir con más requisitos que los aquí recogidos y no será necesario cumplir con el resto de los requisitos recogidos en el artículo 13 de la ley de subvenciones y en la normativa de desarrollo.

EK\CV GAO-I-2020-02868

6. *Diru-laguntzen zenbatekoa.*

1. Ikasle bakoitzeko banakako zenbatekoa dagokion deialdian tarte bakoitzerako finkatzen den kopuru maximoa izango da.

2. Epean eskatutako laguntzen zenbateko totalak deialdian finkatutako aurrekontuaren kreditua gainditzen badu, adjudikazioan lehentasuna izango dute familia-unitateko kide bakoitzeko ahalmen ekonomiko gutxien duten eskatzaileek eta lortutako puntuazioko berdinketarik egotekotan kontuan hartuko da eskaeren aurkezpen ordenari, aipatutako kreditua agortu arte. Onuradunak izateko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileekin eta deialdian aurrez ikusitako laguntzarekin atenditu ezin direnekin itxarote-zerrenda bat osatuko da.

Lasarte-Oriako Udalak horrela kontuan hartuko balu eta aurrekontuaren egoerak baimentzen badio, aukeratu ahal izango du, deialdi honetarako destinatutako baliabideak zabaltzea, aipaturiko deialdiaren itxarote-zerrendan aurkitzen diren onuradunen laguntzetara zuzentzeko.

7. *Aurrekontu-kreditua.*

1. Laguntzak Udalean indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuetan ezarritako zenbatekoaren kargura emango dira. Udalean indarrean dauden aurrekontuetako kontu-sail honetan: «Hezkuntzako Instituzio Sozialak» 1-4200-480-01-326-10-00(369) zbk.

Diru-laguntzek aurrekontuetan izango duten hornidura urtean urteko deialdietan ezarriko da. Ondorioz, diru-laguntzen lerro honen deialdi efektiboa Aurrekontu Orokor hori onestearen eta indarrean sartzearen mende geratzen da, diru-laguntzen lerro honetarako behar den kreditua jaso dezan.

2. Eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko adierazitako diru-izendapena edo, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, eguneratzearen ondoriozkoa.

Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzeko, hala badagokio, ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea, eraginkorra izan dadin.

8. *Espedientearen instrukzioa.*

Lasarte-Oriako Udaleko Kultur Etxeko zuzendari kudeatzailea izango da laguntza hauek emateko instruktorea.

9. *Eskaerak aurkezteko era eta epeak.*

1. Eskabideak I. eranskinean jasotako ereduan aurkeztu beharko dira, Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean bertan, edo horretarako legez ezarritako edozein tokitan, edo, bestela, bide telematikoz, www.lasarte-oria.eus udal-webgunean, eskatzaileak ziurtagiri aitortu batekin digitalki sinatutako dokumentu elektroniko gisa (DNIe, Izenpe, B@kQ, etab.).

Eskaera horretan adieraziko da zein ikaslerentzat eskatzen den diru-laguntza, datu hauek zehaztuz: izena, bi abizen, bizilekua, jaioteguna eta zein eskolatan eta zein mailatan ikasten ari den. Eskatzaileari buruzko datu hauek: izena, bi abizen, identifikazio-zenbakia (DNIa, IFZ edo pasaportea), bizilekua eta familia-unitateko kideen kopurua.

2. Eskabideak aurkezteko epea diru-laguntzen lerro honen urteko deialdian zehaztutakoa izango da.

10. *Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Eskaera horrekin batera, interesatuek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute.

6. *Cuantía de las subvenciones.*

1. La cuantía individual por alumno o alumna alcanzará el importe máximo por tramo que se fije en la correspondiente convocatoria.

2. Cuando el importe total de las ayudas solicitadas en plazo exceda del crédito presupuestario fijado en la convocatoria, tendrán prioridad en la adjudicación los solicitantes con menor capacidad económica por miembro de la unidad familiar y en caso de empate en la puntuación obtenida se atenderá al orden de presentación de sus solicitudes hasta agotar el referido crédito, conformándose una lista de espera con los solicitantes que no puedan ser atendidos con la ayuda prevista en la convocatoria y que cumplan los requisitos para ser beneficiarios.

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, si así lo considerase y la situación presupuestaria se lo permitiera, podrá optar por ampliar el montante de los recursos destinados a las ayudas a fin de dar cobertura a los beneficiarios que se encuentren en dicha lista de espera.

7. *Crédito presupuestario.*

1. Las ayudas serán concedidas con cargo al importe establecido en el Presupuesto Municipal del ejercicio en vigor, en la partida: «Instituciones Sociales Educación» 1-4200-480-01-326-10-00(369).

La dotación presupuestaria de la subvenciones se establecerá en las convocatorias anuales. En consecuencia, la efectiva convocatoria de esta línea de subvenciones queda supeditada a la aprobación y entrada en vigor de dicho Presupuesto General que contemple el crédito necesario para esta línea de subvenciones.

2. El volumen total de las ayudas a conceder no excederá de la consignación señalada o, de la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente.

La ampliación, en su caso, de la dotación inicial de las ayudas como consecuencia de la ampliación del crédito presupuestario no requerirá de nueva publicación de la convocatoria para su eficacia.

8. *Instrucción del expediente.*

El/la instructor de la concesión de estas ayudas será el/la Técnico/a Director-Gerente de la Casa de Cultura del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

9. *Forma y plazos de presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes deberán presentarse en el modelo que se recoge en el anexo I, bien presencialmente en el Registro General del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, o en cualquier lugar legalmente establecido al efecto, o bien por vía telemática a través de la web municipal: www.lasarte-oria.eus, como documentos electrónicos firmados digitalmente por el solicitante con un certificado reconocido (DNIe, Izenpe, B@kQ, etc.).

En esta solicitud se indicarán los datos relativos al alumno o alumna por quien se solicite la subvención, incluidos: Nombre, dos apellidos, domicilio, fecha de nacimiento y centro escolar en que cursa sus estudios y curso. Los datos relativos al solicitante, incluido: Nombre, dos apellidos, n.º de identificación (DNI, NIF o pasaporte) domicilio y número de miembros de la unidad familiar.

2. El Plazo para la presentación de las solicitudes será el que se determine en la convocatoria anual de ésta línea de subvenciones.

10. *Documentación a presentar.*

1. Junto con el impreso de solicitud deberán presentar la siguiente documentación:

EK\CV GAO-I-2020-02868

— Familia-liburuaren fotokopia, familia-unitateko kide guztien orriak dauzkana (laguntza zein ikaslerentzat eskatzen den, harena ere bai).

— Lasarte-Oriako dendetako edo ikastetxeetako fakturen fotokopia edo haiek ordezten dituzten antzeko dokumentuena (faktura sinplifikatuak bezeroa identifikatzen den establezimenduko albaran batekin aurkeztuko dira), laguntzaren kopuru beraren edo gehiagoren balioko (BEZa barne) eskola-materiala erosi duela justifikatuko duena.

2. Eskabideak oso-osorik beteta ez badaude, edo aurreko atalean aipatutako nahitaezko dokumentazioa erantsi ez bazaie, hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, eta Administrazioak eskaera horri buruzko berariazko ebazpena eman beharko du, bai eta jakinarazi ere.

3. Espedientea izapidetzean, laguntza emateko baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak eskatu ahal izango ditu Udalak, bereziki familia-unitatearen diru-sarrerei eta osaerari, eskolatzeari eta eskola-materialeko gastuaren justifikazioari buruzkoak, bai eta balorazio egokia egiteko egokitzat jotzen den beste edozein informazio osagarri ere.

4. Emandako datuak argi eta garbi faltsuak izanez gero, laguntza ukatu egingo da edo itzuli egingo da, ordaindu bada, eskatzaileak dituen erantzukizunak eta zehapen guztiak kontuan hartu gabe.

*11. Eskabideen kudeaketa.*

1. Familiaren Urteko Errenta osatzen du, eskaera egiten den urtearen aurreko ekitaldi fiskalean, berarentzat laguntza eskatzen den ikaslearen bizileku berean bizi diren guztiek PFEZaren ondorioetarako lortutako diru-sarreren multzoak, errenta salbuetsiekin batera. Ez dira hor sartzen, bizileku berean bizi diren arren, berarentzat laguntza eskatzen den ikasleearena ez den beste familia-unitate bat osatzen duten bizikideak, baina, kasu horretan, egoera hori alokairu-kontratu propio baten bidez justifikatu beharko da.

2. Familiaren Urteko Errenta kalkulatzeko formula hau izango da:

— Jarduera ekonomikoen etekinak + eraikin errentatuen errentak + kapital mobiliarioaren etekinak + ondarezko irabazien etekinak + lanaren etekin osoak.

3. Baldin eta laguntza eskatzeko unean familia-unitatearen zirkunstantziak desberdinak badira zegokion PFEZaren likidazioa egin zen unean indarrean zeudenen aldean, eta behar adina justifikatzen badira, eskaeraren unean familia-unitatea osatzen duten kideen datuak bakarrik hartuko dira kontuan. Kasu horretan, familia unitatearen datu ekonomikoak, PFEZren azken kanpainari dagozkionak, proportzionalki hainbanatuko dira familia-unitateko kide guztien artean, alde batera utzita jasotzailea zein izan den, hartara familia-unitatearen diru-sarrerak akreditatutako zirkunstantzia berrien arabera zehazteko.

4. Lasarte-Oriako Udalak informazioa ofizioz kontsultatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, informazio tributarioa elkarri lagatzeari buruz bi administrazioen artean sinatua duten Lankidetzako Hitzarmenaren bertutez. Datu tributarioak erabiltzea eta lagatzea Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan eta Gipuzkoako Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauan aurreikusitako mugen mende egongo da. Foru-arau horren 92.1 artikuluan zehazten da zein kasutan laga daitezkeen Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dauden datu tributarioak haien titularraren baimen beharrik gabe, eta horien artean aurkitzen dira:

— Fotocopia del libro de familia que contenga las hojas de todos los miembros de la unidad familiar (que incluya el alumno/a para el/la que se solicita la ayuda).

— Factura(s) originales o documento análogo que lo sustituya (factura simplificada acompañada de un albarán del establecimiento en el que se identifique al cliente o clienta) perteneciente(s) a comercios de Lasarte-Oria o Centros Escolares, en la(s) que se justifique la compra de material escolar por valor igual o superior al importe de la ayuda, incluyendo el IVA.

2. Si las solicitudes no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación preceptiva relacionada en el apartado anterior, se requerirá para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esa solicitud, así como a notificarla.

3. A lo largo de la tramitación del expediente el Ayuntamiento podrá requerir los documentos que acrediten las condiciones por las cuales pueda concederse la ayuda, especialmente los referidos a los ingresos y composición de la Unidad Familiar, escolaridad y justificación del gasto en material escolar, así como cualquier información complementaria que se estime oportuna para realizar una adecuada valoración.

4. La falsedad manifiesta en los datos facilitados dará lugar a la denegación de la ayuda o al reintegro de la misma en el caso de que ya hubiera sido abonada, con independencia de las responsabilidades en que incurra el solicitante y las sanciones que de ellas se deriven.

*11. Gestión de las solicitudes.*

1. Renta anual familiar: Constituye la Renta Familiar Anual el conjunto de ingresos generados a efectos de I.R.P.F., junto con las rentas exentas, obtenidos en el ejercicio fiscal del año anterior al de la solicitud, por la totalidad de los residentes en el mismo domicilio del alumno o alumna para el que se solicita la ayuda, exceptuados los convivientes en el mismo domicilio que constituyan unidad familiar distinta a la del alumno o alumna para quien se solicita la ayuda, justificándose esta circunstancia mediante contrato de alquiler propio.

2. La fórmula para el cálculo de la Renta Familiar Anual será:

— Rendimiento de actividades económicas + rentas por inmuebles arrendados + Rendimientos del capital mobiliario + Rendimientos por ganancias patrimoniales + Rendimientos íntegros del trabajo.

3. Cuando en el momento de solicitar la ayuda, las circunstancias de la Unidad Familiar sean distintas de aquellas vigentes al realizar la liquidación del IRPF relevante y éstas se acrediten suficientemente, se tendrán en cuenta únicamente los datos de los miembros que conformen la Unidad Familiar en el momento de la solicitud. En este caso, los datos económicos de la Unidad Familiar correspondientes a la última campaña del IRPF se prorratearán entre todos los miembros de la Unidad Familiar, independientemente de quien haya sido el perceptor, a fin de determinar los ingresos de la Unidad Familiar de conformidad con las nuevas circunstancias acreditadas.

4. El Ayuntamiento de Lasarte-Oria consultará de oficio la información a la Diputación Foral de Gipuzkoa en virtud del Convenio de Colaboración en materia de cesión de información tributaria suscrito entre ambas administraciones. El uso y cesión de datos tributarios están sujetos a las limitaciones previstas en la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y en la Norma Foral 2/2005 General Tributaria de Gipuzkoa, en cuyo artículo 92.1, en el que se enumeran los casos en los que se pueden ceder datos tributarios en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa sin necesidad de consentimiento de su titular, se encuentran:

EK\CV GAO-I-2020-02868

— »Beste administrazio tributario batzuekin kolaboratzea, beren eskumenen esparruan dituzten obligazio fiskalak betetze aldera».

— «Administrazio publikoekin elkarlanean aritzea delitu fiskalaren kontra eta funts publikoen edo Europar Batasunaren kargura laguntzak edo diru-laguntzak lortzeko edo jasotzeko iruzurraren kontra borrokatzeko».

5. Gipuzkoako lurralde foralean datu fiskalik izan ezean, eskatzaileari eskatu ahalko zaio eskaera egindako urtearen aurreko ekitaldian familia-unitatearen errenta zenbatekoa izan zen zehazteko beharrezko dokumentazio justifikagarria; besteak beste, eskatzailearen edo familia-unitateko beste kide batzuen bizitoki den lurraldeari dagokion agintaritza fiskalak emandako datu fiskalak, Segurantza Sozialeko bizitza laboralaren txostena, nominak, laguntzen eta diru-laguntzen sinestamenduak edo, azken buruan, baita diru-sarren zinpeko deklarazioak ere.

*12. Ebazpena eta jakinarazpena.*

1. Alkatetzaren ebazpenaren bidez ebatziko dira eskabideak, eta ebazpen hori gehienez ere 6 hilabeteko epean jakinaraziko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ebazpenik ez badago, ezetsitzat joko da.

Banakako komunikazioa alde batera utzi gabe, jakinarazpena Udalaren webgunean (www.lasarte-oria.eus) onuradunen zerrenda argitaratuz egingo da.

2. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

*13. Laguntzaren ordainketa.*

Diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaie onuradunei, diru-laguntza eman ondoren.

*14. Onuradunen betebeharrak.*

1. Baldin eta fakturak dokumentu elektroniko moduan entregatzen badira, eskatzaileari dagokio laguntzaren xedeko gastua justifikatzen duten eta eskaeran identifikatu diren antzeko dokumentuak edo fakturak zaintzea. Instruktoreak errekeritu ahalko dio faktura hori fisikoki aurkezteko, fiskalizatzeko fasean edo espedientea indarrean dagoen denboran zehar zehazten den unean eta moduan.

2. Eskatzaileak modu arduratsuan zaindu beharko du ikaslea egunero joaten dela ikastetxera eta dituen obligazioak betetzen dituela. Onuradunak hurrengo deialdietarako aurkezteko eskubidea galduko du justifikatu gabeko eta denboran jarraiak diren bertaratzeak-hutsegitetza, 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoan 23 artikuluan aipatzen den arabera.

*15. Laguntzen bateragarritasuna eta bateraezintasuna.*

1. Araudi honek aitortutako laguntza bateragarria izango da Lasarte-Oriako Udalak emandako beste edozeinekin, baita helburu bera dutenekin ere,

2. Hala ere, bateraezinak izango dira edozein erakunde edo organismo publikok helburu bererako emandako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, Lasarte-Oriako Udalekoak izan ezik.

*16. Datu pertsonalen tratamendu automatizatua.*

1. Izaera pertsonaleko datuak babesteari dagokionez, Lasarte-Oriako Udalak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 EB Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera jardungo du. Bildutako datu pertsonalak «eskola-materiala eskuratzeko diru-

— La colaboración con otras Administraciones tributarias a efectos del cumplimiento de obligaciones fiscales en el ámbito de sus competencias.

— La colaboración con las Administraciones públicas para la lucha contra el delito fiscal y contra el fraude en la obtención o percepción de ayudas o subvenciones a cargo de fondos públicos o de la Unión Europea.

5. En ausencia de datos fiscales en el Territorio Foral de Gipuzkoa podrá requerirse al solicitante la documentación justificativa necesaria para determinar la Renta de la Unidad Familiar del ejercicio anterior al de la solicitud, entre otros, los datos fiscales proporcionados por la Autoridad Fiscal correspondiente al territorio de residencia del solicitante u otros miembros de la Unidad Familiar, Informe de Vida Laboral de la Seguridad Social, Nóminas, justificantes de ayudas y subvenciones o en último caso Declaraciones Juradas de Ingresos.

*12. Resolución y notificación.*

1. Las solicitudes se resolverán mediante Resolución de Alcaldía que será notificada en un plazo máximo de 6 meses a contar desde el día siguiente al fin de plazo de solicitudes.

La ausencia de resolución se entenderá desestimatoria.

Sin perjuicio de una comunicación individual, la notificación se realizará mediante la publicación en la página web del Ayuntamiento (www.lasarte-oria.eus) de la relación de beneficiarios/as.

2. La Resolución pondrá fin a la vía administrativa.

*13. Pago de la ayuda.*

El abono de la subvención a las personas beneficiarias se realizará en un único pago tras la concesión de la misma.

*14. Obligaciones de los beneficiarios.*

1. En el supuesto de que las facturas se entreguen como documentos electrónicos, corresponde al o a la solicitante la custodia de las facturas o documentos análogos que justifican el gasto objeto de la ayuda y que ha sido identificado en la solicitud. Podrá requerirse la presentación material de dicha factura por parte del Instructor o en fase de fiscalización en el momento y forma que se determine durante toda la vigencia del curso del expediente.

2. Deberá el o la solicitante velar diligentemente por la asistencia diaria del alumno o alumna al centro escolar y por el cumplimiento de sus obligaciones.Las faltas de asistencia reiteradas y sin justificación del alumno o alumna al centro escolar, en base al artículo 23 del Decreto 201/2008, de 2 de diciembre, sobre derechos y deberes de los alumnos y alumnas de los centros docentes no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco serán motivo de exclusión del beneficiario para futuras convocatorias.

*15. Compatibilidad e incompatibilidad de las ayudas.*

1. La ayuda reconocida por la presente Normativa será compatible con cualquier otra concedida por el ayuntamiento de Lasarte-Oria, incluso con las que tuvieran el mismo fin,

2. No obstante, serán incompatibles con otras ayudas, ingresos o recursos destinados a la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Institución u Organismo Público excepto del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*16. Tratamiento automatizado de los datos de carácter personal.*

1. En materia de protección de datos de carácter personal el ayuntamiento de Lasarte-Oria sujetará su actuación a lo dispuesto en el Reglamento General de Protección de Datos (Reglamento UE 2016/679) y en la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. Los datos personales recabados formarán parte de la acti-

laguntzak» tratamendu-jardueraren parte izango dira. Bildutako datuak beharrezkoak dira Lasarte-Oriako Udalari emandako botere publikoak gauzatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko, eta gai horretan eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

2. Datuen titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, Lasarte-Oriako Udalari idatzizko jakinarazpena bidaliz, Nagusi kalea 22, 20160 Lasarte-Oria.

*17. Araudi erregulatzailea.*

Deialdi honen bidez emango diren laguntzak ondoko araudi erregulatzaile honi lotuta daude:

— Oinarri hauetan eta deialdian jasotzen diren klausulak.

— Diru-laguntzak emateko udal-ordenantza arautzailea, Udalbatzarrak 2017ko urtarrilaren 10ean onetsia (075. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko apirilaren 20koa).

— 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.

— 887/2006 errege-dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena.

Lasarte-Oriako Udalaren Aurrekontua Gauzatzeko Araua.

*Azken xedapena.*

Urtero dagozkion deialdiak onartzeko eta publikatzeko derrigortasuna utzi gabe, oinarri espezifiko hauek indarrean jarraituko dute organo eskudunak aldatzen ez dituen bitartean.

vidad de tratamiento «Subvenciones para adquisición de material escolar». Los datos recabados son necesarios para el ejercicio de poderes públicos conferidos al ayuntamiento de Lasarte-Oria y el cumplimiento de las obligaciones legales y podrán ser comunicados a Administraciones Públicas con competencias en la materia.

Los titulares de los datos podrán ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación del tratamiento, enviando comunicación escrita al Ayuntamiento de Lasarte-Oria, Nagusi kalea 22, 20160 Lasarte-Oria.

*17. Régimen jurídico.*

La concesión de las ayudas objeto de la presente convocatoria están sujetas a la siguiente normativa reguladora:

— Las cláusulas contenidas en las presentes Bases y Convocatoria.

— Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento el 10 de enero de 2017 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 075 de 20 de abril de 2017).

— Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— Real Decreto 887/2006 de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

— La Norma de Ejecución Presupuestaria del Ayuntamiento de Lasarte-Oria.

*Disposición final.*

Sin perjuicio de la obligación de aprobar y publicar las correspondientes convocatorias anuales, las presentes bases específicas seguirán en vigor en tanto en cuanto no se proceda a su modificación por el órgano competente.

EK\CV GAO-I-2020-02868